



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/25

Gernikako Batzarretxeak, Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen “Gernikako arbola”-ren, George Steer-ek Gerra Zibilaren gainean egin zuen saiakera ezagunaren, euskerazko bersioaren aurkezpen ekitaldia jaso du

Gernikako Bonbardaketaren 82. urteurrenaren atarian, Eusko Jaurlaritzak George Steerren “The tree of Guernica. A field study of modern war” lan ezagunaren euskarazko bertsioa aurkeztu du: “Gernikako arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat”. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatu duen bertsio berrian, Mikel Ayestaran kazetariak eta Steerren biografo Nicholas Rankin kazetariak hitzurre bana idatzi dute. Koro Navarro itzultzaile donostiarrak (Euskadi Literatura Saria irabazi zuen 2003an) euskaratu du lan hau.

Gernikako Batzarretxean egin da lanaren aurkezpena eta Batzar Nagusietako Presidente Ana Otadui izan da buru. Berarekin izan dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburu Bingen Zupiria, Gernikako Alkate José María Gorroño eta kazetari Nicholas Rankin (sarreraren egilea) eta Mikel Ayestaran (hitzaurren egilea). “Gernikako arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat” liburua Steerren lan entzutetsuaren seigarren edizioa da, “The tree of Guernica. A field study of modern war” lanaren bi edizioen eta Frankismoaren garaian erbesteratutako zenbait euskaldunek Venezuelan bultzatu zuten “El árbol de Guernica. Ensayo sobre la guerra moderna” lanaren hiru edizioen ondotik baitator.

Ana Otadui George Steerren lana goratu du, eta nabarmendu du Gernika ikur unibertsala bihurtzeko egin zuen ekarpena. “*Gernikako Arbola – Gerra modernoaren landa-azterketa bat* lanaren euskarazko edizio honekin, aurrerapauso bat eman dugu gure memoria historikoaren berreskuratzean. Kazetari aske eta konprometitua izan zen Steer, objektiboa izan nahi ez zuen kazetari zintzoa, egia azalaraztea lortu eta Gernika nazioarteko ikur bilakatzen lagunduko zuena”, aipatu du. “Liburu honek oso ondo erakusten du Euskal Herriak gerra odoltsu ha galdu egin zuen arren, denboraren poderioz, oroimenean garaitu egin zuela. Gernikako bonbardaketa gerra haren sinboloa da, Picassoren koadruak unibersalizatu egin zuen eta askatasunaren, giza eskubideen eta bake-nahiaren ikur are handiagoa bihurtu zuen, egin-eginean, gure Gernikako Arboleak beti izan dituen ezaugarrien sinbolo”, gehitu du Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak.

Bingen Zupiria Sailburuak, berriz, lan hau berreskuratzeak eta euskaraz eskaintzeak duen garrantzia nabarmendu du gaurko aurkezpenean. “Erreferentziazko lan bat da euskal bibliografiaren baitan, gure gizartearentzat garrantzia handia izan zuen. George Steerrek ekarpen oso garrantzitsua egin zuen Gerra Zibilean zehar Euskadin gertatutakoa transmitituz, eta egiarekiko konpromiso irmoa agertu zuen: garai hartako ‘fake news’-en aurka egin zuen. Euskarazko edizio berri honek euskal gizartearen memoria demokratikoa berreskuratzen jarraitzen lagunduko du”.

Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratu du lana eta datozen egunotan jarriko da salgai. Euskarazko edizio berri honek 390 orrialde ditu, eta Gerra Zibilean zehar Euskadin gertatutakoak xehetasunez jasotzen ditu. Bertsio berri honek jatorrizko irudiak berreskuratu ditu, eta itzulpena ingelesezko jatorrizko liburutik egin da zuzenean. Bere bertsio digitala eLiburutegia euskal liburutegi digitalean dago eskuragai. Aurretik liburuaren pasarte batzuk euskaratu baziren ere, lehen aldia da lana osorik euskaratzen dela.

Gernikako Batzarretxean aurkezpenaren ostean, Bingen Zupiria sailburuak, José María Gorroño alkateak eta Mikel Ayestaran eta Nicholas Rankin kazetariak Bizkaiko Foru Kamarako Ohorezko Liburuan sinatu dute eta Barrenkale kalera gerturatu dira Ana Otaduirekin. Bertan dagon George Steer-en bustoak, herriaren bonbardaketaren berri mundu osora zabaldu zuen kazetari britainiarra gogorarazten du.

Steer Euskadin

George Steer (Cambridge, Hegoafrika, 1909 – Rangun, Birmania, 1944) The Times eta The New York Times egunkarietako berriemaile berezia izan zen Gerra Zibilean eta bere lana funtsezkoa izan zen Gerran zehar euskal lurraldean gertatutakoak zabaldu ahal izateko. The Times eta The New York Times egunkarietan -azken honetan, lehen orrian- argitaratutako “Gernikako tragedia” bere kronika oso garrantzitsua izan zen nazionalen bertsioa gezurtatzeko. “Euskaldunen hiri sakratua” “erabat suntsitua” zegoela zabaldu zuen mundu osoan, “aireko inbaditzaile matxinoen” erasoaren ondorioz. Hiru ordu baino gehiagoko biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketak eta tiroak deskribatu zituen bere kronikan.

Handik zenbait hilera, George L. Steerrek “The tree of Guernica. A field study of modern war” lana aurkeztu zuen Londresen, saiakera luze bezain zehatza. Bertan, Gerra Zibilean zehar -1936ko udaran Gipuzkoara iritsi zenetik Bilboko erorialdira arte- Euskadin bizitakoak azaltzen ditu. Mikel Ayestaranek bere hitzaurrean adierazten duen bezalaxe, saiakera hori mundu osoan zabaldu izan zen kronika horren “making of”-a da, Steerrek egun horietan idatzi zituen kronika ugarietako “kronika zabala”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/03/2019

La Casa de Juntas de Gernika acoge la presentación de “Gernikako arbola”, la versión en euskera del conocido ensayo de George Steer sobre la Guerra Civil, publicada por el Gobierno Vasco

A un mes de que se cumpla el 82 aniversario del Bombardeo de Gernika, el Gobierno Vasco ha presentado hoy la versión en euskera de la obra de George Steer “El árbol de Gernika. Ensayo sobre la guerra moderna”, que en lengua vasca lleva por título “Gernikako arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat”. La nueva edición de este histórico trabajo ha sido impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, y cuenta con sendos prólogos del periodista Mikel Ayestaran y de Nicholas Rankin, periodista y biógrafo de Steer. La traducción es obra de la donostiarra Koro Navarro, Premio Euskadi de Literatura en 2003.

La presentación de esta obra, que ha tenido lugar en la Casa de Juntas de Gernika, ha estado presidida por Ana Otadui, presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia. Le han acompañado el consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Bingen Zupiria; el alcalde de Gernika, José María Gorroño; y los autores de la introducción y del prólogo de esta edición en euskera: Nicholas Rankin y Mikel Ayestaran, respectivamente. “Gernikako arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat” es la sexta edición que se publica de la conocida obra de Steer, después de las dos ediciones de “The tree of Guernica. A field study of modern war” y las tres de “El árbol de Gernika. Ensayo sobre la guerra moderna”, impulsada durante el franquismo por un grupo de exiliados vascos en Venezuela.

Ana Otadui ha subrayado la figura de George Steer y su contribución a convertir Gernika en un símbolo universal. “Con la edición en euskera de este ‘Gernikako Arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat’ damos un paso más en la recuperación de nuestra memoria histórica. Steer fue un periodista libre y comprometido, honesto, que no pretendía ser objetivo, que logró hacer aflorar la verdad y contribuyó a convertir Gernika en un símbolo internacional”, ha indicado. “Este libro describe muy bien cómo el pueblo vasco perdió, para ganar con el tiempo en la memoria, aquella sangrienta guerra simbolizada en el bombardeo de Gernika y universalizada en el cuadro de Picasso que hace todavía más grande el icono de libertad, defensa de los Derechos Humanos y ansia de Paz que siempre ha significado nuestro Árbol de Gernika”, ha añadido la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia.

Por su parte, el consejero Bingen Zupiria ha destacado la importancia de recuperar una obra capital desde el punto de vista de la memoria de la sociedad vasca y de ofrecerla ahora en euskera. “Se trata de una obra referencial dentro la bibliografía vasca, un trabajo que tuvo una gran trascendencia para nuestra sociedad. George Steer hizo una aportación muy importante desde el punto de vista de la transmisión de lo acaecido durante la Guerra Civil en Euskadi y mostró un compromiso admirable con la verdad frente a las ‘fake news’ que ya existían entonces. Esta nueva edición en euskera contribuye a la recuperación de la memoria democrática de la sociedad vasca”.

La obra ha sido editada por el Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco y se pondrá a la venta en los próximos días. Esta nueva versión en euskera ha rescatado las imágenes originales y cuenta con 390 páginas en las que se recopila información exhaustiva sobre la Guerra Civil en Euskadi. La traducción se ha realizado directamente de la obra original en inglés. La versión digital del libro se puede tomar prestada en eLiburutegia, la biblioteca digital vasca. Se trata de la primera edición en euskera de esta obra, si bien anteriormente se habían traducido algunos pasajes.

Tras su presentación en la Casa de Juntas de Gernika, el consejero Bingen Zupiria, el alcalde José María Gorroño, y los periodistas Mikel Ayestaran y Nicholas Rankin han firmado en el Libro de Honor de la Cámara foral de Bizkaia y, junto a Ana Otadui, se han acercado hasta la calle Barrenkale donde un busto de George Steer recuerda al periodista británico que dio a conocer al mundo el bombardeo de la villa foral.

Steer en Euskadi

George Steer (Cambridge, Sudáfrica, 1909 – Rangun, Birmania, 1944) fue el enviado especial de The Times y The New York Times en la Guerra Civil, y su labor fue clave para divulgar los detalles de la contienda en territorio vasco. Su crónica “La tragedia de Guernica”, publicada por los diarios The Times y The New York Times, donde fue portada, resultó fundamental para desmentir la versión del bando sublevado y divulgar en todo el mundo que la que denominó “ciudad sagrada de los vascos” quedó “completamente destruida” por “invasores aéreos insurgentes”. En su crónica Steer detalló más de tres horas de bombardeos y disparos de ametralladoras contra la población civil.

Unos meses después de aquella crónica, George L. Steer presentó en Londres “The tree of Guernica. A field study of modern war”, un extenso y pormenorizado ensayo en donde relata lo que vivió en Euskadi durante la Guerra Civil desde que llegase en el verano de 1936 a Gipuzkoa hasta la caída de Bilbao. Este ensayo es, como señala Mikel Ayestaran en el prólogo, “el making of” de la crónica que dio la vuelta al mundo, “la extensa crónica de muchas crónicas” que Steer escribió durante aquellos días.